

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillaren izena aldatzeari buruzko espedientearen jendaurrean jartzea

Kuadrillako Batzarrak, 2024ko uztailaren 12an egindako ez-ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea Cuadrilla de Laguardia-Rioja Alavesa / Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillaren izen aldaketari, eta izen horren ordez euskarazko Arabako Errioxako Kuadrilla eta gaztelaniazko Cuadrilla de Rioja Alavesa jartzea.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Mugapeak arautzen dituen otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauaren 62. artikuluan eta haren izendapenean, hiriburutzan eta elementu bereizgarrietan ezarritakoaren arabera, espediente hori jendaurrean jarriko da 30 egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik kontatzen hasita, egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Espediente osoa interesdunen eskura egongo da erakunde honen egoitza elektronikoan (www.arabakoerrioxa.eus) eta Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako idazkaritzan, jendaurreko ordutegian.

Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, Kuadrillaren izena behin-betiko onartuko da erakunde honen hurrengo osoko bilkuran, 4/2021 Foru Arauaren 62. artikuluan ezarritako izapideekin jarraitzeko.

Guztiek jakin dezaten ematen da argitara hau.

Guardia, 2024ko irailaren 13a

Lehendakaria
JOSÉ M^a ELVIRA CEBALLOS